

Mendi lasterketen inguruan solastu dira

13/03/2012

1.mendi asteari hasiera emateko Oihana Kortazar (Salomon Santiveri taldea) eta Kepa Larreak (Euskal Selekzioa) proiektzio eta solasaldia eskaini dute Huheziko aretoan. Hasiera batean Iker Karrera ere etortzekoa bazen ere, arazo tekniko bat medio ezin izan zuen bertaratzerik izan.

Ikusleek zalantzak, iritziak eta usteak elkarbanatzeko aukera izan zuten ordu eta laurden inguru iraun zuen solasaldian. Besteak beste entrenamendua, lasterketa motak, elikadura, emakume/ama/kirolaren arteko harremana eta lehiaketak izan ziren gai nagusiak.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie hizlari eta bertaratutako guztiei.

1.mendi asteko argazkiak

